

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 90/2018 FORU DEKRETUA, ekainaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretua, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoari Buruzko Erregelamendua onesten duena.

ZIOEN AZALPENA

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren bidez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onetsi zen. Izan ere, berregituraketa bat egin zen lehengo Ekonomia Sustatzeko Sailaren egitura organikoa oinarri, Enplegua Sustatzeko Zerbitzua bananduta, eta lehengo Herri Lan eta Garraio Saileko Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia sartuta.

Une honetan, sailak eraikinak mantentzeko dituen eskumenak Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailean zentralizatzeko proiektuaren barruan, beharrezkoa da egitura organikoari buruzko erregelamendu hori aldatzea, arlo horri dagokionez.

Horren ondorioz, aldaketa bat egin behar da indarrean dagoen Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamenduan, sail horren menpe dauden eraikinak mantentzeko eskumena kentzeko.

Azaldutako guztiarengatik, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17.1.4 artikuluan ezarritakoaren babesean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 26(e)ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.—*Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretua aldatzea; haren bidez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onetsi zen*

Honela aldatzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretua, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duena:

Bat. 13.1 artikuluko a) letra honela idatzita geratzen da:

«a) Sailaren sarrera eta gastuen aurrekontuari buruzko aholkularitza orokorra eta kudeaketa ekonomikoa, fase guztietan; informazio ekonomikoari buruzko sistemen eguneratzea; inbertsioen koordinazioa eta Sailak administratutako ondasunen ondare-kudeaketa.»

Bi. 13.1. artikuluan, n) letra gehitzen da, eta honela geratzen da:

«n) Sailaren bulegoak kontserbatzeko eta mantentzeko neurriak hartzea, beste foru sail batzuek arlo horretan duten eskumena ahaztu barik.»

Hiru. 13.1. artikuluan, ñ) letra gehitzen da, eta honela geratzen da:

«l) Arlo honetan unean-unean eskumena duen sailarekin harremanetan jartzea Sailaren instalazioen mantentzearekin zerikusia duten lanak kudeatzeko.»



XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — *Indargabetutako xedapenak*

Indargabetuta geratzen dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — *Erregelamenduz garatzeko gaikuntza*

Ahalmena ematen zaio Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarrean jartzea*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 2018ko ekainaren 26an.

Ekonomi eta Lurralde Garapena
Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ